

## SOLDATAK, PENTSIOAK, LANGABEZIA PRESTAZIOAK ETA GIZARTE AURREIKUSPENEKO ERRESKATEAK SEXUAREN ARABERA GIPUZKOAN- 2018

(Departamentuko web orrian, “Departamentuko beste argitalpen batzuk” atalean aurkitu daitekeen txosten osoaren laburpen bat da)

-----


### 1. SOLDATAK

#### 1.1. Soldatak sexuaren arabera

Jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2018. urteko 324.421 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 8.678ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %2,7ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Soldatak jasotzen dituzten guztietatik, %46,3 emakumezkoak dira, eta beste %53,7 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek guztiaren %39,1 jasotzen dute, eta gizonezkoek %60,9.

**Grafikoa 1 – Soldaten banaketa sexuaren arabera -2018**



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezko soldatapekoen batez bestekoa 21.798 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 29.247 eurokoa.

## Grafikoa 2 – Soldaten batez bestekoa sexuaren arabera -2018



Azkeneko hamar urteetan emakumezkoen parte hartzea lan merkatuan nabarmen handitu da: 2009an 129.562 emakume ziren laneko soldatak jasotzen zituztenak; 2018an kopuru hori 146.122ra igo da, hau da, %12,8 gehiago. Gizonezkoak, berriz, 163.333tik 169.621ra pasa dira (+%3,8). Urtez urteko bariazioak aztertuz gero, soldatak jasotzen dituzten emakumezko kopurua 2009an eta 2013an bakarrik jaitsi zen; aldiz, krisia hasi zenetik gizonezko soldatapeko kopurua etengabe jaitsi da 2013. urte arte. 2014. urtetik aurrera emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua igo egin da (2018an %1,5 igo da emakumezkoen kopurua eta %2,7 gizonezkoena).

**Taula 1. Soldatapekoen bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2009</b>	129.562		163.333	
<b>2010</b>	129.579	0,0	159.900	-2,1
<b>2011</b>	129.939	0,3	157.491	-1,5
<b>2012</b>	130.619	0,5	157.298	-0,1
<b>2013</b>	128.699	-1,5	152.262	-3,2
<b>2014</b>	131.354	2,1	153.948	1,1
<b>2015</b>	135.184	2,9	156.927	1,9
<b>2016</b>	139.823	3,4	161.284	2,8
<b>2017</b>	143.916	2,9	165.180	2,4
<b>2018</b>	146.122	1,5	169.621	2,7
<b>2009/2018</b>		12,8		3,8

Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen pisua soldatapeko guztien artean 2,1 puntu igo da azken hamar urteetan: 2009an soldatak jasotzen zituzten pertsona guztien %44,2 zen emakumezkoa, eta 2018an, lehen aipatutako %46,3ra iritsi dira. Ondorioz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %55,8 izatetik %53,7 izatera pasa dira.

Kopuruaren bilakaera horrek isla izan du zenbatekoetan. Horrela, 2009an emakumezkoek jasotako soldatak 2.672 milioi euro izan ziren bitartean, 2018an 3.185 milioi euro izan dira; hau da, %19,2 gehiago. Gainera, taulan ikusten denez, 2012 eta 2013 urteetan izan ezik, beste guztietan bariazio positiboak izan dituzte.

**Taula 2. Soldaten bilakaera sexuaren arabera (milioi eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2009	2.672		4.478	
2010	2.699	1,0	4.402	-1,7
2011	2.731	1,2	4.431	0,7
2012	2.706	-0,9	4.346	-1,9
2013	2.701	-0,2	4.239	-2,5
2014	2.738	1,4	4.294	1,3
2015	2.841	3,8	4.406	2,6
2016	2.939	3,4	4.547	3,2
2017	3.023	2,9	4.634	1,9
2018	3.185	5,4	4.961	7,1
<b>2009/2018</b>		19,2		10,8

Gizonezkoak jasotako soldatak %10,8 igo dira hamar urte hauetan: 4.478 milioi eurotik 4.961 eurora. Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen soldaten pisua 1,7 puntu igo da hamar urte hauetan: 2009ko 35,4tik lehen aipatutako %39,1era. Eta gizonezkoena %62,6tik %60,9ra pasa da.

**Taula 3. Batez besteko soldaten bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2009	20.624		27.419	
2010	20.829	1,0	27.527	0,4
2011	21.014	0,9	28.138	2,2
2012	20.713	-1,4	27.627	-1,8
2013	20.990	1,3	27.840	0,8
2014	20.846	-0,7	27.894	0,2
2015	21.018	0,8	28.076	0,7
2016	21.019	0,0	28.194	0,4
2017	21.007	-0,1	28.052	-0,5
2018	21.798	3,8	29.247	4,3
<b>2009/2018</b>		5,7		6,7




2009tik 2018ra emakumezko soldatapekoen batez bestekoa %5,7 igo da: 20.624 eurotik 21.798 eurora. Gizonezko soldatapekoena, berriz, %6,7 igo da: 27.419 eurotik 29.247 eurora.

Sexuen arteko batez bestekoaren arrailak gora-behera handiak izan ditu azken hamar urte hauetan:

- 2009. urtean 6.795 eurokoa zen. Horrek adierazten du emakumezkoen soldata gizonezkoena baino %24,8 txikiagoa zela.
- 2009–2018 epealdian, 2010., 2012., 2013. eta 2017. urteak izan ezik, arraila igo egin zen. Azken urte honetan 7.449 eurokoa da. Nahiz eta balio absolutuetan alde handirik ez egon 2009ko zenbatekoarekin (6.795 euro), balio erlatiboetan aztertuta arraila soilik 0,7 puntu igo da: 2009ko %24,8tik 2018ko %25,5era.

### Grafikoa 3– Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak)




## 2. PENTSIOAK

### 2.1. Pentsioak sexuaren arabera

Soldaten atalean esan den bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2018. urteko 182.467 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 2.953ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %1,6ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Pentsiodun kopuruaren banaketa oso orekatua da: %49,1 emakumezkoa da, eta beste %50,9 gizonezkoa. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek pentsio guztien %40,1 jasotzen dute, eta gizonezkoek %59,9.

**Grafikoa 4 – Pentsioen banaketa sexuaren arabera -2018**



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen batez besteko pentsioa 14.955 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 21.558 eurokoa.

## Grafikoa 5 – Pentsioen batez bestekoa sexuaren arabera -2018



Azken hamar urteetan emakumezko nahiz gizonezko pentsiodunen bilakaera oso antzekoa izan da. Emakumezkoak 73.495etik 88.221ra pasa dira (+%20,0), eta gizonezkoak 76.150etik 91.293ra (+%19,9).

**Taula 4. Pentsiodunen bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2009</b>	73.495		76.150	
<b>2010</b>	74.474	1,3	77.080	1,2
<b>2011</b>	75.836	1,8	78.545	1,9
<b>2012</b>	77.509	2,2	80.365	2,3
<b>2013</b>	78.570	1,4	81.665	1,6
<b>2014</b>	79.557	1,3	83.023	1,7
<b>2015</b>	82.269	3,4	85.490	3,0
<b>2016</b>	83.429	1,4	86.777	1,5
<b>2017</b>	85.837	2,9	88.012	1,4
<b>2018</b>	88.221	2,8	91.293	3,7
<b>2009/2018</b>		20,0		19,9

Nahiz eta zenbateko osoaren bilakaeran antzeko joera izan, emakumezkoak jasotako pentsioak zerbait gehiago igo dira aztertutako hamar urteetan: +%62,1 (814 milioi eurotik 1.319 milioi eurora). Gizonezkoek jasotako pentsioak 1.339 milioi eurotik 1.968 milioi eurora pasa dira (+%47,0). Horren ondorioz, emakumezkoen pentsioen pisua 2,3 puntu igo da azken hamabi urteetan: 2009ko %37,8tik lehen aipatutako %40,1era. Beraz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %62,2tik %59,9ra.



**Taula 5. Pentsioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2009</b>	813.869.304		1.338.851.475	
<b>2010</b>	853.735.358	4,9	1.393.467.600	4,1
<b>2011</b>	908.519.425	6,4	1.474.680.151	5,8
<b>2012</b>	951.743.221	4,8	1.529.034.399	3,7
<b>2013</b>	999.917.213	5,1	1.596.829.770	4,4
<b>2014</b>	1.067.389.051	6,7	1.689.496.928	5,8
<b>2015</b>	1.116.723.894	4,6	1.753.863.201	3,8
<b>2016</b>	1.168.100.503	4,6	1.810.292.017	3,2
<b>2017</b>	1.220.037.874	4,4	1.864.525.686	3,0
<b>2018</b>	1.319.366.427	8,1	1.968.134.408	5,6
<b>2009/2018</b>		62,1		47,0

2009tik 2018ra emakumezkoen batez besteko pentsioa %35,1 igo da: 11.074 eurotik 14.955 eurora. Gizonezkoena, berriz, %22,6 igo da: 17.582 eurotik 21.558 eurora. Lehenago aipatu dugun bezala, epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %13,0 igo da.


**Taula 6. Batez besteko pentsioaren bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2009</b>	11.074		17.582	
<b>2010</b>	11.464	3,5	18.078	2,8
<b>2011</b>	11.980	4,5	18.775	3,9
<b>2012</b>	12.279	2,5	19.026	1,3
<b>2013</b>	12.726	3,6	19.553	2,8
<b>2014</b>	13.417	5,4	20.350	4,1
<b>2015</b>	13.574	1,2	20.515	0,8
<b>2016</b>	14.001	3,1	20.861	1,7
<b>2017</b>	14.213	1,5	21.185	1,6
<b>2018</b>	14.955	5,2	21.558	1,8
<b>2009/2018</b>		35,1		22,6

Azken hamar urte hauetan sexuen arteko batez bestekoaren arrailak behera egin du balio erlatiboetan (grafikoaren errenkada urdina): 2009. urtean %37,0koa zen eta 2018an %30,6koa da. Horrek adierazten duena da emakumezkoen batez besteko pentsioa gizonezkoena baino %30,6 txikiagoa dela.

Balio absolutuetan, berriz, handitu egin da: 2009an 6.508 euroko aldea zegoen, eta 2018an 6.603 eurokoa da.

**Grafikoa 6 – Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera**



### 3. LANGABEZIA PRESTAZIOAK


#### 3.1. Langabezia prestazioak sexuaren arabera

Soldata eta pentsioekin gertatu zaigun bezala, hemen ere jasotzaileen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, pertsonen sexua lortzerakoan. Horrela, 2018. urtean langabezia prestazioa jasotzen duten 43.365 pertsonatik ez dugu ezagutzen 820ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune txiki horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Langabezia prestazioa jasotzen duten guztietatik, %54,1 emakumezkoa da, eta beste %45,9 gizonezkoa. Zenbatekoari begirazten badiogu, berriz, emakumezkoek guztiaren %51,4 jasotzen dute, eta gizonezkoek %48,6.



## Grafikoa 7 – Langabezia prestazioen banaketa sexuaren arabera -2018



Azken hamar urteetan langabezia prestazio jaso duten emakumezko nahiz gizonezko kopuruaren bilakaera antzekoa izan da:

- Emakumezkoen kopurua 28.487tik 23.035ra jaitsi da (-%19,1).
- Gizonezkoen kopurua 39.797tik 19.510ra jaitsi da (-%51,0)

**Taula 7. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2009</b>	28.487		39.797	
<b>2010</b>	29.608	3,9	38.923	-2,2
<b>2011</b>	29.877	0,9	34.814	-10,6
<b>2012</b>	31.416	5,2	36.736	5,5
<b>2013</b>	30.715	-2,2	35.304	-3,9
<b>2014</b>	28.340	-7,7	29.986	-15,1
<b>2015</b>	25.491	-10,1	24.576	-18,0
<b>2016</b>	23.818	-6,6	22.048	-10,3
<b>2017</b>	22.796	-4,3	20.067	-9,0
<b>2018</b>	23.035	1,0	19.510	-2,8
<b>2009/2018</b>		-19,1		-51,0

Zenbatekoan ere antzeko bilakaera ikusten da: emakumezkoak jaso dutena %35,3 jaitsi da (106 milioi eurotik 68 milioi eurora), eta gizonezkoena %62,4 jaitsi da (172 milioi eurotik 65 milioi eurora).

**Taula 8. Langabezia prestazioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2009</b>	105.920.643		171.846.876	
<b>2010</b>	112.741.802	6,4	171.768.314	0,0
<b>2011</b>	110.552.896	-1,9	147.975.071	-13,9
<b>2012</b>	121.605.054	10,0	164.832.673	11,4
<b>2013</b>	117.290.070	-3,5	156.125.492	-5,3
<b>2014</b>	100.049.303	-14,7	124.872.316	-20,0
<b>2015</b>	83.890.340	-16,2	91.956.972	-26,4
<b>2016</b>	74.316.603	-11,4	77.003.589	-16,3
<b>2017</b>	69.433.627	-6,6	67.255.408	-12,7
<b>2018</b>	68.496.655	-1,3	64.668.545	-3,8
<b>2009/2018</b>		-35,3		-62,4


## 4. GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERRESKATEAK

### 4.1. Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Beste atal batzuetan aipatu dugun bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzeko, zenbait aitorpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2018. urtean erreskateak errenta moduan egiten dituzten 17.361 pertsonetatik, ez dugu ezagutzen 146ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %42,7 emakumezkoak dira, eta beste %57,3 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzeko badiogu, emakumezkoek guztiaren %34,1 erreskatatzen dute, eta gizonezkoek %65,9.

## Grafikoa 8 – Errenta moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2018



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2018. urtean 5.046 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 7.268 eurokoa.

Gizarte aurreikuspeneko sistemataraz egiten diren kontribuzio eta ekarpen asko lan kontratuari lotuta daude. Horregatik, emakumezkoen presentzia lan merkatuan handitu den neurrian, erreskateetan duten parte-hartzea ere handitu eginda. Horrela, azken hamar urteetan errenta moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 8.944etik 7.359ra (-%17,7) pasa da. Gizonezkoak, berriz, 13.832tik 9.856ra pasa dira (-%28,7). Bi kasuetan urtero eman dira igoerak, etekin gabe, 2014an, 2015ean eta 2016an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 eredu).

**Taula 9. Errenta moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2009</b>	8.944		13.832	
<b>2010</b>	9.376	4,8	14.440	4,4
<b>2011</b>	9.562	2,0	14.480	0,3
<b>2012</b>	10.113	5,8	14.941	3,2
<b>2013</b>	10.648	5,3	15.463	3,5
<b>2014</b>	9.244	-13,2	12.019	-22,3
<b>2015</b>	6.954	-24,8	8.997	-25,1
<b>2016</b>	6.706	-3,6	8.725	-3,0
<b>2017</b>	6.815	1,6	9.361	7,3
<b>2018</b>	7.359	8,0	9.856	5,3
<b>2009/2018</b>		-17,7		-28,7

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak. Horrela, 2009an emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 43 milioi euro izan ziren bitartean, 2018an 37 milioi euro izan dira; hau da, %13,1 gutxiago. Gainera, taulan ikusten denez, urte guztietan bariazio positiboak izan dituzte, 2014an, 2015ean, 2016an eta 2017an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 ereduan).

**Taula 10. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2009</b>	42.720.587		98.725.921	
<b>2010</b>	45.701.618	7,0	105.567.094	6,9
<b>2011</b>	48.801.743	6,8	111.372.260	5,5
<b>2012</b>	54.138.617	10,9	116.647.917	4,7
<b>2013</b>	59.949.583	10,7	125.422.345	7,5
<b>2014</b>	42.984.031	-28,3	81.146.999	-35,3
<b>2015</b>	35.646.621	-17,1	57.882.087	-28,7
<b>2016</b>	34.141.762	-4,2	67.570.153	16,7
<b>2017</b>	33.383.960	-2,2	64.002.666	-5,3
<b>2018</b>	37.130.289	11,2	71.631.590	11,9
<b>2009/2018</b>		-13,1		-27,4


Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %27,4 jaitsi dira hamar urte hauetan: 99 milioi eurotik 72 milioi eurora. Hauek ere urtero bariazio positiboak izan dituzte, 2014an, 2015ean eta 2017an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 ereduan).

## 4.2. Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Erreskateak egiten dituzten pertsonen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, sexua lortzerakoan. Horrela, 2018. urteko 12.024 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 50en sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %42,1 emakumezkoak dira, eta beste %57,9 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzten badiogu, emakumezkoek guztiaren %38,4 erreskatatzen dute (73 milioi euro), eta gizonezkoek %61,6 (117 milioi euro).

### Grafikoa 9 – Kapital moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2018



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2018. urtean 14.400 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 16.825 eurokoa.

Azken hamar urteetan kapital moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 4.779tik 5.047ra igo da (+%5,6). Gizonezkoak, berriz, 9.382tik 6.927ra pasa dira (-%26,2).

**Taula 11. Kapital moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2009</b>	4.779		9.382	
<b>2010</b>	4.873	2,0	9.541	1,7
<b>2011</b>	5.856	20,2	10.079	5,6
<b>2012</b>	5.533	-5,5	9.040	-10,3
<b>2013</b>	5.197	-6,1	8.526	-5,7
<b>2014</b>	5.427	4,4	8.003	-6,1
<b>2015</b>	6.334	16,7	8.408	5,1
<b>2016</b>	5.186	-18,1	7.058	-16,1
<b>2017</b>	4.887	-5,8	6.848	-3,0
<b>2018</b>	5.047	3,3	6.927	1,2
<b>2009/2018</b>		5,6		-26,2



Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak, baina areagotuta. Horrela, 2009an emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 69 milioi euro izan ziren bitartean, 2018an 73 milioi euro izan dira; hau da, %5,9 gehiago. Eta hori, 2011rekin alderatuta jaitsi egin dela; izan ere, urte horretan emakumezkoak kapital moduan erreskatatutako zenbatekoa 114 milioi eurotara iritsi zen.

**Taula 12. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2009</b>	68.624.348		162.269.923	
<b>2010</b>	76.459.403	11,4	185.100.687	14,1
<b>2011</b>	113.650.983	48,6	243.672.147	31,6
<b>2012</b>	73.435.474	-35,4	146.978.897	-39,7
<b>2013</b>	78.989.960	7,6	163.928.931	11,5
<b>2014</b>	74.936.206	-5,1	129.739.272	-20,9
<b>2015</b>	83.497.209	11,4	139.719.531	7,7
<b>2016</b>	73.264.430	-12,3	137.768.065	-1,4
<b>2017</b>	69.351.533	-5,3	128.109.863	-7,0
<b>2018</b>	72.677.961	4,8	116.550.078	-9,0
<b>2009/2018</b>		5,9		-28,2

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %28,2 jaitsi dira hamar urte hauetan: 162 milioi eurotik 117 milioi eurora. Hauek ere 2011n lortu zuten zenbatekorik altuena: 244 milioi euro.